



BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA ARRAGUA

ZENBATGARREN SAIOA : 1

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2016-11-07	19:30	21:12

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak: Juan Inazio, Iñaki, Jexux, Enekoitz, Eneritz

Kopurua: 26

16-30 urte: 0	Emakumeak: 15	Euskaraz: 21
30-50 urte: 1	Gizonezkoak: 11	Elebitan: 5
50-65 urte: 17		
>65 urte: 8		

AKTALARIA: Eneritz Arbelaitz

Gai zerrenda:

	GAIA/JUSTIFIKAZIOA	ERABAKIA
1	Aurkezpena	19:31-19:37 Bileraren egitura aurkeztu da. Zinegotzi taldea aurkeztu da.
2	Aurrekontuak 2017	19:37-19:57 2017ko lehenengo zirriborroa aurkeztu da: diru sarreren aurreikuspena, gastuen aurreikuspena.
3	2016ko balorazioa	19:57-20:08 2016ko inbertsioen balorazioa aurkeztu da.
4	2017ko inbertsioak	20:08-20:14 2016ko bileretan jasotako eskaeren ondoren eta urtean zehar ikusi diren beharren ondoren, 2017rako herri mailan inbertsio egin beharreko handiak aurkeztu dira.
5	Mantenu lanak	20:14-21:10 Herritarrak eskaerak egiten has idira: · Topoaren akzesoa oso txarra da: Loiolan, Fanderian obra egokiak egiten dira, baina Arraguan oso egoera txarrean utzi dute guztia eta igogailurik ez dute jarri. Euskotrenekin hitz egitea eskatu du. Erantzuna: ez dugu egin behar genuen prozedura jarraitu.

	<p>Insistitzen jarraituko dugu eta garrantzia gehiago ematen saiatuko gara. 2016an ez gara nahikoa saiatu.</p> <ul style="list-style-type: none">· Txakur kakak: papelerak eta kartelak jartzea eskatu zen. Papelera jarri da, baina kartelak ez. Orokorrean errespetatzen da. Oraindik, hala ere batzuk ez dute errespetatzen. Bidegorriko kartelak jartzea eskatu du.· Ganboxa kalean abiadura ez da errespetatzen. Asfaltatzea egitean resaltoak jartzea eskatu dute. Zebrabideetan azkar pasatzen dira autoak. Erantzuna: errepikatzen den arazoa da auzo guztietan. Ganboxan egin beharreko obrarekin hori kontuan hartzea da helburua.· Aparkalekuko obrak: azpian aparkalekua omen zegoen prest. Zergatik ez da aprobetxatu? Erantzuna: aparkaleku horretan zutabe batzuk eginak zeuden. Promozio hori garatu behar duenari dagokio dagokio eta guk hori egiteak aurrekontua asko igoko luke. Bertako garapen urbanistikoa erei kusi beharra dago nola egingo den. Garapen hori egin bitarte zain ez egoteagatik erabaki da aparkaleku hau egitea.· Ganboxa errepideko asfaltatzeaz gain lorategian jolas batzuk jartzea proposatu du. Erantzuna: aurrekontuei dagokionez ez dakigu gai izango garen hau ere egiteko. Baina guztia egiteko aukera balego, ikusiko litzateke haurrentzako zein motatako parkea egiteko gai garen.· San Juan sua: iaz Arraguan leku desegokian kokatu zen eta ondorioz bandoa jarri zen leku desegokia zelako eta mugitu egin zen muntoa. Hori ez errepikatzeko, prozedura bat proposatu du:<ul style="list-style-type: none">· Auzo bakoitzean leku egoki bat zehaztu· Pertsona arduradun batek baimena eskatzea· Etxebizitzetatik urrunduz· Hurrengo egunean sua erabat itzaltzeko muga jarri.Erantzuna: proposatutako prozedura erabat egokia iruditzen zaigu. Arautu nahi dugu. Ea gai garen ongi egiteko 2017an.· Auzo bakoitzean su bakarra egiteak ondorioak ere baditu. Izan ere, Arraguan gauza asko behean soilik egiten dira, eta sua ere behean eginez gero, jendeak behera joan beharko luke. Arragua goian ere bizitza emateko aukera izan daiteke goian gauzak egitea. Parkea eta leku seguru eta egokiak goian ere egon beharko lukete.· Lartzabal etxadian peatonal moduan jarri zen, baina kotxeak abiadura handian pasatzen dira. Hor ere zerbait egin behar da abiadura jaisteko.
--	---

		<ul style="list-style-type: none">· Argiteriaren kableei dagokionez Larrezabaleta zaharra pasa bitarte autopistako zubitik kableak egurrezko posteeekin dago eta gainerakoa soterratua. Ezin da hori ere soterratu. · Ganboxan apeaderoa zegoen tokian espaloia geratu da. Aparkatzeko lekurik ez da egoten eta hor aparkatzeko lekuak jartzea proposatzen du. Erantzuna: egina dagoen proiektu baten planoa aurkeztu du Jexuxek. Kale horretan aparkatzeko lekuak planteatzen dira, eta ganboxako aparkaleku proiektu bezala aurkeztu dugunarekin leku gehiago egongo lirateke bertan. · Topo azpian zutabetan kartelak jartzen dira. Denborarekin kartelak belardietan geratzen dira. Gaur goizean justu garbitu dute. Kartelak jartzea debekatua dagoela jartzea proposatu du herritarrak. · Autopistako irteera oso gaizki dago. Kamioiak abiadura handian iristen dira Arraguara. 70km/h-ko muga dago jarria, baina kamioi batentzat abiadura handia da. Honen inguruan Udalak dagokionari adieraztea eskatu du. Kotxeak ere azkar joaten dira. Astero badago golpe bat. Erantzuna: Aldundiari jakinarazi beharko diogu. · Kamioiak auzora sartzen dira nahastuta. Erantzuna: Aldundiari bidaltzen dizkiogu honelako eskaerak. Iaz auzotako eskaerekin ere bildu ginen eta beraien irizpideetan ez badira sartzen zerrrenda batean geratzen da. Orain honen berri ere emango dugu. · Lanbarren obra egiten ari dira. Zergatik ez dute autopistarako irteera han egiten? Erantzuna: kota desberdintasun handia dago han. PTPak irteera bat aurreikusten du hor, baina irteera handia da, Lezoko mugaraino doana buelta emateko. Gainera Aldundiari Lanbarren seinaleetika jartzeko ere eskatu izan diogu. Erantzuna ezezkoa izan da, saturatua omen daude seinaleak. · Merkataritza gune handiak datoz. Udalak ezin du ezer egin hori geratzeko? Erantzuna: 2015eko martxoan onartu zen Oiartzungo arau orokorrak. Bertan aktibitate tertziarioa mugatzen da. Duela urte bete desenbarko bat egin dute. Arau orokorretan onartua dagoena ezin da ukatu. Ukatzeko beste arrazoi batzuk egon daitezke. Ramon vizcainon supermerkatu bat jartzea, adibidez, trafiko arrazoiengatik geratu dugu. Arraguan, berriz, Aldi bat jartzeko eskaera egin zuten eta horri ezetz ezin izan zaio esan. Bidebitarten ere jarri nahi zuten, baina trafiko arrazoiengatik hori ere geratu dugu.
--	--	--



		<ul style="list-style-type: none"> · Lartzabal etxadiko aparkaleku berriari dagokionez: eskailerak aparkalekura doaz. Baina aulkiarekin doazenak nondik doaz? Minusbalido txartela ez dutenak (ama aulkian daukatenak txandetan ibiltzen direnak, haurren aulkiarekin ibiltzen direnak). Erantzuna: hori begiratu behar dugu. Aste honetan bukatu nahi genuen eta begiratu dugu nola dagoen. Pintatzea falta zaigu eta barandak eta jartzea falta zaizkigu oraindik. Euriagatik atzeratzen ari da. · Lartzabal etxadiko aparkaleku eta kiroldegia dagokionez: hormigoizkoa egitea ongi iruditzen zaio, aukera ematen baitu edozein gauzatarako erabiltzeko. Aldagela bota da eta hortik bidea zegoen Carrefour aldera. Hori gaizki geratu da. Aparejadoreak esan zion Carrefour alderako bide hori proiektuan ez zela egin, baina brigadarekin egin zitekeela esan zion. Banko batzuk jarri zitekeela... Bizikletak eta helduentzako makina batzuk ere jar daitezke. Erantzuna: Makina hauek orain iturriotzen jarriko ditugu eta ea nola geratzen diren. Hemen ere aukera egon daiteke jartzeko. · Arkale dorrearen atzean txabola bat egin dute eta oso zikina dago. Xiringak ere ba omen daude. Jendea lotara ere joaten omen da. Erantzuna: ikustera joango gara. · Frontoia pintatzeko aukerarik badago? Erantzuna: 2017an egingo da. · Bidegorria oso polita dago baina Arragatik hasita Arditurrira komun bakarra dago. Futbol zelaiaren atzean jar daiteke, bestea Ergoien inguruan. · Espaloia: Aldegunatik Goikoeskolara igotzen ari zarela pareta bat dago eta oso hezea da. Irristakorra dagoenez jendea oinez igotzeko errepidera jaisten da. · Larrezabaleta kalean autopista azpian autoak aparkatzen dira eta arriskutsu geratzen da.
6	Balorazioa	21:10-21:12 Balorazio orriak bete dira.

2016 URTEA

2017ko aurrekontuak



Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,2
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8,3
Bileran erabili den metodologia	8,1
Herritarren asistentzia	5,1
Herritarren partehartzea	7,1
Saioa probetxugarria izan al da?	8,2
Egunaren egokitasuna	8,3
Orduaren egokitasuna	8,3
Lekuaren egokitasuna	8,7
Denera bataz beste	7,8

Komunikazio bideak	kop	%
Kartela	2	8
Whatsapp	10	40
Irratia eta prentsa	1	4
Sare sozialak	2	8
Ahoz-ahoz	0	0
Udal aldizkaria	10	40